

Prentsa oharra

Nota de prensa


Udalak neurriak hartu ditu Parte Zaharreko zamalanak kontrolatzeko

Joan den abuztuan Mugikortasun Zuzendaritzak egindako azterketaren ondoren

Donostiako Udalak hainbat neurri jarriko ditu abian Parte Zaharreko zamalaren sarbidea hobetzeko, joan den udan egindako ikerketaren emaitzak aztertu ondoren.

Pilar Arana Mugikortasun eta Garraio zinegotziak adierazi duenez, “eremu horretako erabiltzaileen arteko bizikidetzari lagunduko dioten hainbat jarduera egingo dira. Gune honek araudi espezifikoak ditu gainera, oinezkoentzako ingurune berezia baita”.

Lehenenik, Parte Zaharreko sarreretan dauden **seinaleak ordezkatu** dira, bertara sartzen diren ibilgailuentzat argiagoak izan daitezzen. Seinale horiek datozen egunetan jarriko dira, eta zamalanetarako erreserbatutako guneetara iristeko edo bertatik irteteko ibilbideak ere erakutsiko dituzte.



Bigarren neurria baimenik gabeko ibilgailuen **sarrerak** nola zamalanetarako eremuen erabilera desegokiak **kontrolatzeko** lana indartzea izango da. Horretarako, seinale berriak jartzen direnean, behar bezala zaindu ahal izango da zamalana adierazitako eta baimendutako lekuetan bakarrik egiten dela, lan horiek ez dituztela ibilgailu turismoei egiten eta ezarritako ibilbideak errespetatzen direla. Kontrol horiek 7:00etatik

Prentsa oharra

Nota de prensa

11:30era egingo dira (zamalanelarako ordutegia), eta hasiera batean pedagogikoak izango dira, baina aurrerago zehatuko dira araudia betetzen ez dutenak.

Ezari beharreko hirugarren neurria aurrerago gauzatuko da, horretarako egungo Zirkulazio Ordenantza aldatu behar baita. Aldaketa egiten denean, oinezkoentzako gunera sartu behar duten ibilgailu guztiek **aldez aurretiko baimena** eskatu beharko dute nahitaez.

Zamalanen azterketa

Mugikortasuneko Zuzendaritzak abuztuaren 5etik 11ra zamalanetarako ordutegian (7:00etatik 11:30era) egin zuen azterlanetik ateratako ondorioetan oinarrituta ezarriko dira neurri horiek. Azterlanaren helburua honakoa zen: Parte Zaharreko oinezkoentzako espazio publikoaren erabiltzaileen artean lanegunetan zamalanetarako ibilgailuentzat gordetako ordutegian sortzen diren egoerak egiaztatzea.

Ondorioak

Argi dago eremu horretara zenbat eta ibilgailu gehiago sartu, orduan eta eragin handiagoa izango duela kolektibo zaugarriengan, bereziki ordutegi horretan ikastetxera sartzen diren adin txikiko ikasleengan, auzoan bizi diren adinekoen ehuneko handia ahaztu gabe.

Bestalde, baimenik gabe sartzen, ibiltzen eta zamalanetarako espazioa okupatzen duten ibilgailuek ez dute lekuri uzten benetan zamalanak egiten dituztenentzat, eta, gainera, oinezkoentzako eremu horretako trafiko fluxua areagotzen dute.

Hartu diren neurrien helburua da baimenik gabe sartzen diren ibilgailuek horrelakorik ez egitea; izan ere, banaketarako ibilgailuak bakarrik sartuko balira, Konstituzio plazan eta Boulevarden zamalanetarako plazen eskaintza nahikoa izango litzateke dagoen eskaerari zerbitzua emateko, eta etorkizunean San Juan kaleko erreserba kendu ahal izango litzateke.

Era berean, beharrezkotzat jo da behin eta berriro sartzen diren ibilgailuen sarrerak mugatzea benetako beharra frogatzen duten ibilgailuei bakarrik, egunero behin baino gehiagotan sartzen diren ibilgailuak hori egin dezaten saihesteko.